

Baremazioa

Onartzeko betekizunak betetzen dituzten pertsonak eta bizikidetza unitateak honako irizpide hauen arabera puntuatuko dira:

1) Diru-sarrerak. Gehieneko puntuazioa: 35 puntu

- Bizikidetza unitateari bere diru-sarrera haztatuen arabera puntuak emango zaizkio, honako tarte hauen artean. Bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonen diru-sarrera haztatuak zehazteko, Eusko Jaurlaritzak etxebizitza babestu bat eskuratzeko ezarritako haztapen irizpideak hartuko dira kontuan.
- Hainbat **tarte eta puntu** ezartzen dira, kupoen arabera:

1.1) 1. kupoa (Mugikortasun urria), 2. kupoa (Genero indarkeria), 3. kupoa (Adimen desgaitasuna), 4. kupoa (65 urtetik gorakoak), 6. kupoa (Familia ugariak), 7. kupoa (Guraso bakarreko familiak), 9. kupoa (Kupo orokorra) eta 10. kupoa (70 urtetik gorakoak, etxebizitza baten titularrak):

Honako puntu hauek emango dira tarteen arabera:

	1. – 2. – 3. – 4. – 6. – 7. – 9. – 10. KUPOAK	
TARTEA	DIRU-SARREREN TARTEA	PUNTUAK
1	3. 000,00 € (*) - 16. 000,00 €	35
2	16.000,01 € - 25.000,00 €	30
3	25.000,01 € - 30.000,00 €	25
4	30.000,01 € - 35.000,00 €	17
5	35.000,01 € - 46.463,29 €	10

(*) Ez da gutxieneko kopururik ezartzen mugikortasun murriztua, adimen- edo garapen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzat eta genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen dutenentzat.

1.2) 5. kupoarentzat (ardurapean seme-alabarik ez duten 35 urtetik beherakoak) eta 8. kupoarentzat (etxebizitza partekatua):

Honako puntu hauek esleituko dira tarteen arabera:

	5. – 8. KUPOAK	
ZK.	DIRU-SARREREN TARTEA	PUNTUAK
1	3.000,00 € (*) - 9.000,00 €	35
2	9.000,01 € - 15.000,00 €	30
3	15.000,01 € - 25.000,00 €	25
4	25.000,01 € - 30.000,01 €	17
5	30.000,01 € - 35.000,01 €	10
6	35.000,01 € - 46.463,29 €	5

(*) Ez da gutxieneko kopururik ezartzen mugikortasun murriztua, adimen- edo garapen-desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzat eta genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen dutenentzat.

Dokumentazioa:

Printzipioz, ez da beharrezkoa diru-sarreraren dokumentazioa aurkeztea. Beharrezkoa izanez gero, eskatuko da.

Honako kasu hauetan baino ez da beharrezkoa izango justifikazio dokumentazioa:

- Zergak Gipuzkoatik kanpo ordaintzen badituzte: PFEZ aitorpena
- Nolanahi ere, prestazio ez-kontributiboak edo antzeko diru-sarrerak (subsidioak, bekak...) jasotzen badira, horien ziurtagiria aurkeztu beharko da.

2) 23 urtetik beherakoak edo mendekotasun egoeran daudenak, bizikidetza unitatean. Gehieneko puntuazioa: 15.

- Legezko tutoretza edo familia harrera behar duten 23 urtetik beherako pertsonak eta seme-alabak zenbatuko dira, baldin eta etxebizitzan errolatuta badaude, edo judizialki zaintza partekatuko erregimena edo bisita erregimena aitortuta badute; baita etxean bizi diren eta mendekotasuna duten (1etik 3ra bitarteko mendekotasuna) 23 urtetik gorako pertsonak ere.
- Taula honen arabera emango dira puntuak:

ADINGABE EDO MENDEKO PERTSONEN KOPURUA	PUNTUAK
Adingabe/mendeko 1	5
2 adingabe/mendeko	10
3 adingabe/mendeko	13
4 adingabe/mendeko edo gehiago	15

- **Dokumentazioa:**
 - Bizikidetza unitatean 1 eta 3 gradu arteko mendekotasuna duen pertsonaren kasuan: Gradua adierazten duen Foru Aldundiaren ziurtagiria.

3) Antzinasuna Donostiako Etzegintzaren Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroko inskripzioan. Gehieneko puntuazioa: 20.

- Atal honetan puntuazioa lortzeko, eskatzaileak berak edo harekin bikotea osatzen duen pertsonak egindako eskaeraren antzinasuna hartuko da kontuan, bizikidetza unitatea lehengo bera ez bada ere.
- Puntuak ondorengo taularen arabera emango dira:

ESKAERAREN ANTZINATASUNA (URTEAK)	PUNTUAK
urtebete baino gutxiago	0
urte 1etik 2 urtera bitarte	2
2 urtetik 3 urtera bitarte	4
3 urtetik 4 urtera bitarte	6
4 urtetik 5 urtera bitarte	8
5 urtetik 6 urtera bitarte	10
6 urtetik 7 urtera bitarte	12
7 urtetik 8 urtera bitarte	14
8 urtetik 9 urtera bitarte	16
9 urtetik 10 urtera bitarte	18
10 urte edo gehiago	20

- **Dokumentazioa:**

Ez da dokumentaziorik aurkeztu behar; Etsegintzan dauden datuak hartuko dira kontuan.

4) Donostiarekiko lotura. Gehieneko puntuazioa: 10.

- Kontratuaren titular izango den bizikidetzaren unitateko kideren bat hirian **modu jarraituan bizitzea, ez jarraituan bizitzea** edo bertan **lan egitea** hartuko da kontuan, ondorengo taularen arabera:

LOTURA MOTA	URTEAK	PUNTUAK
Modu jarraituan bizitzea	10 urte edo gehiago	10
Modu ez jarraituan bizitzea	5 urte, azken 10 urteetan	8
	3 urte, azken 15 urteetan	6
Lan harremana izatea	Azken 10 urteak osorik	5

- **Dokumentazioa:**

- Bertan bizitzeagatik loturaren kasuan, ez da dokumentaziorik aurkeztu behar; Udal Erroldako datuak hartuko dira kontuan.
- Lanagatik loturaren kasuan: Lan bizitza eta lan egiten duen enpresaren ziurtagiria.

5) Egoera bereziak. Gehieneko puntuazioa: 10.

- Atal honetan puntuazioa lortzeko, bizikidetzaren unitatean **terrorismoaren biktimak den edo 1. gradutik 3.era bitarteko mendekotasuna duen** pertsona bat dagoen kasuak eta **azken bi urteetan ohiko etxebizitza utzarazteagatik etxebizitza hori galdu duten pertsonen** kasuak (betiere galdutako etxebizitza beren jabetzako bakarra bada) hartuko dira kontuan.
- Puntuak ondorengo taularen arabera emango dira (metatu gabe):

EGOERA BEREZIAK	PUNTUAK
Terrorismoaren biktimak izateagatik	10
Mendekotasunagatik (1. gradutik 3.era bitarte)	10
Azken 2 urteetan utzarazpenaren ondorioz ohiko etxebizitza galdu izanagatik	10

- **Dokumentazioa:**

- Terrorismoaren biktimaren kasuan: Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritza eskudunaren txostena.
- Bizikidetzaren unitatean 1 eta 3 gradu arteko mendekotasuna duen pertsonaren kasuan: Gradua adierazten duen Foru Aldundiaren ziurtagiria.
- Utzarazpenagatik ohiko etxebizitza galdu duen pertsonaren kasuan, betiere jabetzan beste etxebizitzarik ez badu: azken bi urteetan gertatutako utzarazpenari buruzko ebazpena.

6) Hainbat kupotan parte hartzeko betekizunak betetzea. Gehieneko puntuazioa: 10.

- 1., 2., 3., 7. eta 10. kupotako premia bereziko ikastaroetan parte hartzeko baldintzak betetzea. Bizikidetza unitateen eskaerek hemen adierazitako kupotako batean baino gehiagotan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte.
- Dokumentazioa:**
Ez da dokumentaziorik aurkeztu behar; Etzegintzan dauden datuak hartuko dira kontuan.

7) Adina: 10. kupoarentzat bakarrik. Gehieneko puntuazioa: 20.

- Puntuak ondorengo taularen arabera emango dira (metatu gabe):

ADINA	PUNTUAK
85 urte edo gehiago	20
84 eta 80 urte artean	15
79 eta 75 urte artean	10
74 eta 70 urte artean	5

8) Mugikortasuna: 10. kupoarentzat bakarrik. Gehieneko puntuazioa: 10.

- Taula honen arabera emango dira puntuak:

DESGAITASUNA	PUNTUAK
% 25 edo gehiago, edo 7 puntu edo gehiago, edo A eta B letrak (mugikortasuna)	10
% 5 eta % 24 artean, edo 3 eta 6 puntu artean (desgaitasuna mugikortasunari dagokionez)	5

- Dokumentazioa:**
Foru Aldundiaren ziurtagiria, ehunekoa, letra edo mugikortasun-maila adierazten duena.